

ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezzen.

1. Erakundearen izena:	SPRI, Enpresen Garapenerako euskal agentzia
2. Sektorea:	Administrazio publikoa - Industria
3. Langile kopurua:	72
4. Webgunea:	www.spri.eus
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p>Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko erakundea da, euskal industria bultzatzea helburu duena. Digitalizazioa, Ekintzaitza, Ikerketa eta Garapena, Berrikuntza, Kluster politika, Zibersegurtasuna eta Trantsizio digital jasangarria dira SPRIren lan-ildo estrategikoak. SPRI Taldeko kide diren Arrisku Kapitala, Basque Trade & Investment, SPRILUR eta Euskadiko Parke Teknologikoak kontuan hartuta, Finantzaketa, Nazioartekotzea eta Azpiegiturak ere gehitu behar dizkiogu aurreko zerrendari. Lan-ildo hauek bultzatzeko enpresei zuzendutako laguntza-programak kudeatzen ditu Sprik.</p> <p>Euskadiko Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko BERPIZTU programa (2020-2024) eta bertatik eratorriko diren planak dira SPRIren Kudeaketa Planaren esparru orokorra. Programak bi ardatz bertikal ditu: batetik, Ekonomia suspertzeko ardatza eta, bestetik, enplegua dinamizatzeko ardatza. Bi ardatz horiek 12 jarduera-politikaren bidez garatzen dira, eta horiexek osatzen dute ekonomia eta enplegua berreskuratu eta suspertzeko neurri eta tresnen erreferentzia-esparrua, 2024ra arte garatuko dena. Bada hirugarren ardatz bat ere: enpleguaren kalitatea eta genero berdintasuna.</p>

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

Solaskidearen izen-abizenak:	Miren Jasone Aretxabaleta Osa
Helbide elektronikoa:	jaretxabaleta@spri.eus
Telefonoa:	944037068 - 607084538

PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

1. Praktika onaren titulua:	INDEUS, Industriaren Euskal Plataforma
2. Praktika onaren azalpena: Zer da? Zertan datza? Nondik dator? Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?	<p>Zer da: INDEUS, Industriaren Euskal Plataforma 2018.urtean sortutako enpresa industrialen foro bat da.</p> <p>Helburua: Euskal Autonomia Erkidegoko industria arloan euskararen presentzia areagotuz, euskal enpresen lehiakortasunaren euskarri izatea.</p> <p>Zertan datza:</p> <ul style="list-style-type: none">- Enpresa industrialek euskaraz lan egiteko dituzten zaitasunak/oztopoak identifikatu eta irtenbideak bilatzen ahalegintzen gara.- Euskaraz lan egiteko baliabide berriak sortu ditugu (Industria Berriaren Hiztegia).- Enpresek euren praktika onak partekatzen dituzte.- Eragile desberdinekin harremanetarako bidea zabaldu dugu, arlo desberdinetan eragiteko (Hezkuntza, Garapen agentziak, Euskaingintza, IKTak...). <p>Nondik dator: Euskara lan-hizkuntza duten euskal enpresek euren lehiakortasunari eusteko zituzten arazoak berri helarazi zituzten 2018an, industria sektorean produktuak eta zerbitzuak euskaraz lortzeko zailtasunak hain zuzen ere.</p> <p>SPRIren misioa “<i>Euskal enpresen lehiakortasuna babestea, bultzatzea eta sustatzea...</i>” izanik, ekimen hau abiaraztea erabaki genuen, Energiaren Euskal Erakundea eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza bidelagun hartuta. Gaur egun, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ere gurekin bat egin dute.</p> <p>Onurak – Emaitzak:</p> <ul style="list-style-type: none">- Esperientzia, arazoak, oztopoak partekatzea eta antzerako egoerak bizi dituzten enpresak ezagutzea.- Enpresek egin beharreko derrigorrezko ikuskaritzak euskaraz egitea ziurtatzeko eskaera egin dugu.- Enpresek erabiltzen dituzten softwaren errolda egin dugu, euskaraz zeintzuk dauden jakiteko. Eta ez daudenen inguruan, euskaratzeko nola eragin aztertzeke.

- Euskararen erabilpen txikia duten enpresei, euskara planak egiteko dauden laguntzen berri ematen diegu, baita beste enpresa batzuen praktika onak ezagutzeko aukera ere.
- Prestakuntza saioak euskaraz ere egin daitezzen eragiten ari gara.
- Laguntzaile-sarea sortzeko lehen urratsak eman ditugu.
- SPRIk kudeatzen dituen **8 laguntza-programatan** euskara ziurtagiria baloratzen da.
- Indeus web gunea sortu dugu eta honen barruan kideentzako gunea pribatua. Hor dugun foroaren bidez partekatzen dugu informazioa.
- **INDEUSBERRI:** industria eta euskarari lotutako albisteentzako gunea sortu dugu, industria eta euskara uztartzen dituzten berriei ikusgarritasuna emateko.
- **Industria Berriaren SPRI Hiztegia:** industria arloan sortzen ari diren termino berriak jasotzen dira bertan, hiru hizkuntzatan (euskara, gaztelania, ingelesa). Urtero, 200 kontzeptu berri sartzen dira. Hiztegiko informazio guztia EUSKALTERMera bidaltzen da urtero, Terminologia Banku Publikoan sartzeko.
- INDEUSen harira, SPRIk bere harreman esparruak zabaltzen ditu bereziki euskara lan-hizkuntza duten jardunetara: UDALTOP, ENPRESAREAN, ENPATIKONOMIA, EUSKARABILDUA
- **ENPRESEN KATALOGOA:** produktuak eta zerbitzuak euskaraz diseinatu, garatu eta eskaintzen dituzten enpresen katalogoa egiteko erabakia hartu dugu.

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)


indeus
INDUSTRIAREN
EUSKAL
PLATAFORMA




KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



INDEUS, Industriaren Euskal Plataformak bere marka-irudi propioa du, baita INDEUSBERRI buletinak ere.



2022ko martxoaren 31n egindako lantaldeen bileraren argazkia. INDEUSEk dagoeneko **29 enpresa, zentro teknologiko eta elkarte** ditu hiru lantaldetan banatuta: Inguru Digitala, Euskarazko Produktuak eta Atariko. Batzorde eragilean berriz, SPRI, EVE, HPS eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak daude.

Lantaldeak hiru hilabetetik behin biltzen dira. Batzorde Eragilea hilean behin. Batzar Orokorra urtean behin egiten da.



<https://www.spri.eus/hiztegia/>

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA

